



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Geografía

**USE 2024**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



### AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:  
**A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat.** Mapak, grafikoak edo irudiak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.  
**B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat.** Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.  
**C multzoa (2 puntu): Proposatutako 8 kontzeptuetatik 4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, behar den kopurura iritsi arte.

***Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea***




**A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)**

A1 eta A2 aukeren artean, **hautatu bat**

**A1.-** Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko adin-piramidearen iruzkina (4 puntu).

Testuingurua: "EAEko ugalkortasuna muga oso baxuetan dago, aurreko urteen aldean; izan ere, 2022an batez beste 1,21 jaiotza izan ziren emakume bakoitzeko, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago, eta Europar Batasuneko 1,53 jaiotzetatik behera, oso urrun 1976ko batez besteko 2,7 jaiotzetatik eta belaunaldi-ordezkapenerako behar diren 2,1 jaiotzetatik. Bestalde, bizi-itxaropena Europar Batasunean baino handiagoa da, 2,5 urte gehiago gizonen kasuan eta 2,7 emakumeen kasuan" [EUSTAT, 2022](#)



Iturria: INE



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2024ko OHIKOA

**GEOGRAFIA**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A  
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

**GEOGRAFÍA**

**A2.-** Paisaia-irudi baten iruzkina. (4 puntu).

Testuingurua: “Gaur egun, Euskadik kanpoko energia-mendekotasun handia du, energia-kontsumo osoaren % 90 inguru. Petrolioaren eratorriak dira energia-iturri erabiliena, ondoren gas naturala dago, eta energiaren azken kontsumoan erregai fosilen portzentajea % 83,9 izan zen 2022an. Euskadin energia-estrategiari lotutako helburuen artean, azpimarratzekoak dira 2030ean energiaren eskaria % 17 murriztea joera-agertokiari dagokionez, energiaren amaierako kontsumoan energia berriztagarrien erabilera % 13tik % 21era igarotzea, petroliotik eratorritakoak % 18 murriztea, eta energia-jatorria duten CO<sub>2</sub> emisioak 3 Mt apaltzen laguntzea”. 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena





**B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)**

B1 eta B2 aukeren artean, **hautatu bat**

**B1.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Espainia mediterraneoan. (4 puntu)

**B2.-** Turismo-jardueraren bilakaera eta egungo garrantzia Espainian. (4 puntu)

**C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)**

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko 5 lerro erabili ahal izango dituzu gehienez:

- Mendigune (edo mazizo) zaharra (0,5 puntu)
- Metropoli-aldea (0,5 puntu)
- Klima (0,5 puntu)
- Eguraldia (0,5 puntu)
- Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
- Arrisku naturala (0,5 puntu)
- Plataforma logistikoa (0,5 puntu)
- Garapen jasangarria (0,5 puntu)



## GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

### OHIKO DEIALDIA / CONVOCATORIA ORDINARIA

#### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak hierarkizatze gaitasuna
- erantzunen egituratze ordenatua
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

#### A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

**A1.-** Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko adin-piramidearen iruzkina. (4 puntu)

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Piramidearenen itxura. Adin-talde gazteenen kopurua nabarmen eta etengabe jaisten ari da, eta, aldi berean, adin helduenen kopurua handituz doa.
- ✓ Populazio zaharraren artean: bizi-itxaropen handiagoa duenez, populazio femeninoaren pisua handiagoa da. Gerra-aldiko jaiotza-tasa txikia. COVID-19aren ondorioz 2020an gertatutako neurritz gaineko hilkortasuna, 65 urte edo gehiagoko adin-tarteari eragin ziona batez ere.
- ✓ Helduen artean: *baby boom* (1958-1977) belaunaldiaren eta hurrengo urteen zabaltasuna.





- ✓ Belaunaldien murriztapena urte hoietatik aurrera emankortasun-eta jaiotza-tasaren jaitzieragatik
- ✓ Jaiotza-tasaren zabaltze txikia nabarmentzen da, oso xumea, 10-14 urte tartean.
- ✓ Azken beherakada, krisia eta adin emankorrean dauden belaunaldien kopuru txikiagoa.

**A2.-** Paisaia-irudi baten iruzkina. (4 puntu)

**Kontsultatu, epigrafe honetarako, dokumentu hau:**

<http://hdl.handle.net/10810/37549>

[Diapositibak: 57-58-59](#)

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

1.- **(0,25)** Zer elementuk osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da, naturala edo antropikoa?

- *Paisaia osatzen duten osagaiak bereizten ditu:* antropiko abiotikoa portu-eremu eraikian eta induskatutako hegalean, biotikoa hegal-aukietako landaredian eta hidrikoa itsas eremuan.

2.- **(0,5)** Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze-formarik ikusten duzu?

- *Ageri den erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze-forma, kokapena:* itsasertzeko paisaia bati dagokio. Kostaldeko erliebe bat da, argazkiaren oinean dagoen mendiaren hegalak eta atzealdean ikusten den itsaslabarrak osatua. Bien artean, irekidura bat marrazten da, oso zabala ez den badia bat, abra deitzen dena. Mendi-hegalaren jatorrizko modelatze-moduak desagertu egin dira; izan ere, harrobi gisa erabili da, portua handitzeko eta betetzeko erabili den harkaitza erazteko.

3.- **(0,5)** Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?

- *Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzorua erabilera mota. Eragile nagusiak aipatzen ditu: kokapenaren arabera baldintza klimatikoak:* behatutako landaredia ez dator bat itsasertz atlantikoko labar eta hegaletako landaredi potentzialarekin (haritz-basoak). Landaredi erruderala da (latinez *runderis* "obra-hondakinak"), ekintza antropikoak eraldatutako eremuetan hazten eta garatzen diren landareak.

4.- **(0,25)** Ur-gorputzik ikusten da? Zein?



**ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**  
**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN**

- *Hainbat ur-gorputz bereizten ditu:* Kantauri itsasoaren eremua ikusten da barrualdera sartzen den ziri batekin. Itsasoak ibai-harana inbaditzen du, eta, horregatik, mareen eragina iristen den heinean, itsasadarra esaten zaio.

5.- **(0,5)** Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?

- *Paisaia horretan agertzen diren funtzioak egoki bereizten ditu:* Paisaia hori portuko azpiegitura bati dagokio. Bertan, eraikitako eta eraikitzen ari diren dikeak eta kaiak ikus daitezke, eta gas naturala deskargatu, biltegitatu, tratatu eta banatzeko eremua. Paisaia horren funtzioak merkataritza- eta industria-zerbitzuak dira.

6.- **(2)** Zure ustez paisaia horretan natura-gizarte harremanaren potentzialitate edo arazoren bat hautematen da?

\*Atal honetan, gerta daiteke ikasleek irudiarekin lotutako beste gai batzuk garatzea, eta haiek ere egokiak izan daitezke.

- *Paisaia horretan adierazten den potentzialitatea edo lurralde-arazoa egoki ikusten eta azaltzen du:* Bilboko kanpoko portuaren zatia jasotzen du irudiak, abran, baina, irudian ikus daitekeen bezala, itsasoari berriki irabazitako espazio bat da. Izen bereko itsasadarrean izan zuen jatorria Bilboko portuak, baina, industria-jarduera, ontzigitza eta merkataritza handitu ahala, ubidea bideratu eta kaiak, dikeak eta kontradikeak eraiki ziren, portuaren ahalmena handitzeko. Kanpo-inguruko beste udalerrri batzuetarantz ireki zen portua, eta, horretarako, bete eta itsasoaren gainean eraiki zen. Handitzeari esker, merkataritza- eta industria-jarduera dibertsifikatu egin da, eta itsasadarren ertzetan balio estrategiko handiko lurak berreskuratu dira hirigintzaren ikuspegitik. Obra horrek aldatu egin ditu itsasertzeko ingurumen-baldintzak eta izaera (artifizializazioa), eta jarduera ekonomiko eta komertzial handiagoa lortu du. Irudian, gas-instalazio bat ikusten da. Euskadik energia-kontsumoaren tasa handia du, batez ere industria-sektoreari lotuta, eta, energia-baliabide gutxi dituenek, sektore horri lotutako industriak izaera estrategikoa du. Ikatza (Pasaia) eta fuel-olioa (Santurtzi) erabiltzen zuten zentral termikoak oso kutsagarriak ziren, eta dagoeneko desegin dituzte; egungoak ziklo konbinatukoak dira, eta gasa erabiltzen dute.





## **B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)**

**B1.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Espainia mediterraneoan. (4 puntu)

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Eremu hauek hartzen ditu: Mediterraneo itsasoaren kostaldea eta kostaldeaurrea, Guadalquivir harana eta Balear uharteak.
- ✓ Nekazaritza-egituraren ezaugarriak: biztanleriaren murriztapena nekazari-exodoaren eraginez; kostako baratzeetan izan ezik, populatze sakabanatuak pilatzeko joera du; ustiategiaren tamainari erreparatuta, hau da banaketa: lur ureztatueta minifundioa da nagusi, Valentzia eta Murziako lehorreko lurretan ustiategi txikiak eta ertainak, ertainak Katalunian eta handiak Andaluziako mendebaldean.
- ✓ Lehorreko laborantzak (zerealak, mahatsondoa, olibondoa arbendolondoak) Guadalquivir haranean, kostaldeaurreko inguru menditsu eta gorabeheratsuetan eta Mallorcaren barrualdean.
- ✓ Laborantza ureztatueta baratzezaintza goiztiarra aire zabalean, baratzezaintza goiztiarra plastikopean, frutikultura mediterranea (zitrikoak, fruta hezurdun eta pipitadunak) eta fruitu tropikalak (txirimoia, ahuakatea, mangoa).
- ✓ Behi eta txerrien abeltzaintza nagusi Katalunian, ardiak lehorreko lurretan eta abelburu basatiak Guadalquivir ertzetan.
- ✓ Baso-ustiapienak garrantzi txikia du, Huelvako eukalpto-sailak izan ezik.
- ✓ Azken urteetako arazoak, klima-aldaketak eta akuiferoen gehiegizko ustiapienak eraginak.

**B2.-** Turismo-jardueraren bilakaera eta egungo garrantzia Espainian (4 puntu)

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ 1960ko hamarkadatik garapen turistiko handia; gaur egun, munduko bigarren potentzia turistikoa da jasotako bisitariaren kopuruari eta turismoaren diru-sarrereri dagokienez.
- ✓ Lehen turismo-eredua: "eguzkia eta hondartza" izaerako masa-turismoa. Turismo-eskaintza ugaria eta merkea, eskari homogeen eta masiboari zuzendua, erosteko ahalmen ertaina edo ertain-txikia zutenak helburu,



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

udan pilatuta eta Balearretako, Kanarietako eta Mediterraneoko kostaldeko eguzkiko eta hondartzako inguruetan kontzentratua. Eredu hori sendot zuten eragileak: Europako mendebalde eta hegoaldeko garapen ekonomikoa, garraioen aurrerapena, hurbiltasun geografikoa, baliabide natural eta kultural bikainak, kostu txikia, azpiegiturak eta zerbitzuak egotea, nazioarteko harremanen normalizazioa eta jomuga turistikoaren eskaintza estatu-politika bezala. Baditu ezaugarri hauek ere: nazioarteko operadoreen menpekotasuna turismo-jardueraren merkaturatzean eta jardueraren ingurumen-inpaktuarekiko axolagabetasuna.

- ✓ 1973-1985 bitartea krisi-unea izan zen, eskaintzaren arazoengatik: prezioak garestitu egin ziren inflazioaren eta soldatak igotzearen eraginez, baina zerbitzua, azpiegiturak eta ingurumenaren kalitatea handitu gabe, eskakizun berrietara ez egokitzea (turismo-modalitateen dibertsifikazioa), kontuan izanda, gainera, oporrak urtean zehar banatuz joaten zirela eta Europako biztanleria zahartzen ari zela. Turismo-helmuga lehiakide berriak agertzea.
- ✓ Azken hamarkadetan, turismo-eredu berria: kalitatezko eskaintza, erosteko ahalmen handiagoa duen eskari berezitu eta urriagora bideratua, hobeto banatuta denboran eta espazioan, turismo-modalitateen dibertsifikazioa. Bukatu ez den eredu honen eragileak: eskaintzaren kalitatea, dibertsifikazioa, sustatze eta ingurumen-jasangarritasuna, helmuga turistiko berriak klima-aldaketaren esparruan...
- ✓ COVID-19ak sortutako krisia eta berreskurapena.

### C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du).

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Mendigune zaharra/Mazizo zaharra:** Paleozoikoko material kristalino eta metamorfiko zurronek eratutako egitura geologikoa, alpetar orogenian konkorratutako gisa edo haustura bidez deformatu zirenak.

**Metropolialdeak:** hiri nagusi eta dinamiko batek eta haren eraginpean era osagarrian hazten diren inguruko beste batzuek osatzen duten multzoa.

**Klima:** leku bateko atmosferaren batez besteko egoera, urte osoan gertatzen diren eguraldi moten ohiko segidak eraginez. Klimaren ezaugarriak modu



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

estatistikoan zehazten dira batez besteko baloietatik abiatuta. Fidagarritasuna epe luzeko behaketak eginez lortzen da.

**Eguraldia:** toki eta une jakin bateko atmosferaren egoera, aldagai atmosferikoen multzoak ezaugarritzen duena.

**Arro hidrografikoa:** ibai batek eta beraren ibaiadarrek drainaturiko lurraldea.

**Arrisku naturala:** natura- edo ingurumen-prozesu bat, ongizatea edo giza bizitza mehatxa dezakeena, ondorio katastrofikoak izan ditzakeelako: giza galerak eta kalte materialak azpiegituretan, eraikinetan, uztetan...

**Plataforma logistikoa:** eremu bat non hainbat enpresak salgaien garraioaren logistikarekin lotutako jarduerak egiten dituzten.

**Garapen jasangarria:** garapen mota bat, egungo belaunaldien premiak asetzen dituen arriskuan jarri gabe etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak ase ahal izatea.